

Txipiroiak Gabonetarako

Hondarribia, 27. zk., 1988-12/1989-01: 6.

Bada Hondarribian txipiroitara ibiltzen denik, noski; kostaldeko beste itxas-portu guztietan bezalaxe.

Baina seguraski inor ez Ramun "Luzia" bezain treberik.

Azken urteetan gertatzen zitzaiona zera zen, besoak gogortzen hasi zitzaizkioala... Neguko egun batez, abenduak 22, puntatik kanpora zis-zas, zis-zas, ari zela, motorra gelditu zitzaion... "Tol"... Makurtu zen, eta... ez gora eta ez behera, gerria enbor bilakatu bailitzaion!

Motorra piztu nahi eta ezin.

Arratsaldeko bostak inguru ziren; nahiko ilun.

Hotz zen, haizerik gabekoa bazen ere; itsasoa bare, txipiroitako aproposa... Burua ezin jaso bazuen ere, bazekien Larrungo kaxkoa elurtua zegoela. Isiltasun osoa, txaluparen kontrako "txapla-txapla" batzu ezik... eta Hondarribiko argiak piztu zituzten, ikusi baitzuen dirdira... Burutik pasa gabe: "e!" esan zuen... bere kolkorako bezala, eta irten egin zitzaion. Gauza zen, beraz, ahalegin pixka batekin inguruan zebilen bizilagunari oihu bat egiteko. Baina isilik geratu eta burua jarri zuen martxan... Ez zuen inoren kupidarik nahi. Batez ere bere bizilagunarenik, lagundu beharrean farrez hasteko kapaz zen eta!; inbidiatsu horietakoa baitzen... Orain gutxi esan ere egin zion, txipiroitarako lana ez zela besoak nekatuak dauzkan gizonarentzat...; eta dena petrikiloarena tentsioa hartzera joaten ikusi zuelako... Ramunen burua hartan zegoela, bizi-bizi pentsatzen; gaizki, baina pentsatzen, eta gerria eta besoak harri bihurtzen ari bailiran berakako hotza sumatzen ari zela...

"Ramun, zer duk?"... sartu zitzaion belarran...

Arestian buruan zuen gizon beraren ahotsa zen... Koño, errekoño!...

"Zer duk?"... berriz; sudurra ikusi zion lehen, eta hitzak esan bezain laster bere ondoan eserita zegoen; gero, sentitzen ez zuen bere bizkarrezurra igurtzi zion. Sentitzen zizkion bere hatz handiak, eta besterik gabe lotu zion sokaz bere motorra brankatik eta han ekarri zuen kontu handiz kanaletik Bentara...

Lotsatuta!

Bidean, mataderira daramaten idi zahar baten moduan sentitu zen Ramun...

Etxera lan handiekin eraman zuten eta laster agertu zen sendagilea, honek egin zion lehen ziztada. "Bigarren aldia duzu, Ramun", esan zion, "eta eskerrak gizon hori hurbil zenuela berriz ere... Ezin zara bakarrik joan, eta batere joango ez baziña, hobe"...

Gero, gaua nahiko ongi pasa zuen.

Biharamunean sendagilea etorri zenean jaiki nahi izan zuen; ez zion utzi; gutxienez gabonak ohean pasatzeko agindu zion. Egun osoa emaztearekin borroka bizian pasa zuen; aitona jaiki, eta amonak oherarazi! Behin eta berriz... Semea etorri eta honek serioski hitzegin zion arte:

"Egon bedi lasai, enkargatuak dituen urteroko txipiroiak gorabehera ez da inor goseak hilko... Eta kito!... Konforme?"

Ramunek, baietz...

Bai, ezin zuen besterik egin... Amona lasaitu zen. Sendagilea etorri eta beste ziztada bat agindu zion; petrikiloa etorri zitzaion jartzera.

Gau hartan loak hartu zituen aitonamonak pakean, ekaitza ondoren dena baretzen baita.

Ramunentzat bigarren ziztada handi hark egin zion on; ohean batera eta bestera primeran mugitzen hasi zen, nahi zuen aldera jartzen... zangoak berak ere arin sentitzen zituen, gazte! Horrelakorik! Proba egiteko, gaumahaiko txizontzia utzi eta jaiki egin zen komunera; eguna argitzen hasia zen, salako erlojuari begira zegoela bost tantoak dardarti entzun ziren etxe guztian... Horixe egingo zuen, pentsatzen ari zena... Jantzi zen kontu handiz, Joxepa ez esnatzearren, eta han jaitsi zen bere trasteekin eskailera behera, zaratarik egin gabe, aingeru batek egingo zukeen antzera, eta gero motorra inoiz baino hobeto, "¡plis!"... piztu zen eta hor zihoan zutik popan, barra eskuan, motor eta txalupen artean, berria bezala!... "pof-pof-pof", eta dagoeneko kanalean, maria gorantz, hotzik ez, eseri eta hor hasi zen besoez tira-tira... tira-tira... txol ongi, eta eskuinarekin, zizta!, txipiroia; eta bestea!, bestea!... Jauja honetan bi orduz bete zuen eramandako treskas berdea gainezka, txalupa bera txipiroiz bete zuen arte!... itsasoa hustu eta txalupa bete zuen arte!...

"Ramun, tira, hartu kafesnea bero dagoen bitartean"...

Joxepak esnatu du amets ederretik! Eta farrez hasten da: "Non dituzu neuk gaur ekarritako txipiroiak!"...

Emazteak erraz jarraitzen dio broma: joaten da sukaldera eta txipiroiz gainezka dagoen balde berdea erakusten dio...

"Hauek al dira neuk harrapatutakoak?!"...

Eta Joxepak senarrari komeria jarraitzea gogoko du, hain humoretsu esnatu delako: "Noski, gizona, zertan aritu zara bada gau guztian honetarako ez bada?!"...

Ez dakite zerk lotu dituen zorionean, baina poz-apurak datozenean, hartu egin behar dira galdera gehiegi egin gabe.

Gabonetako seinalearekin sortzen direnean, esate baterako.

Afarirako jaiki da, eta familia azaolioaren usainean bixigua jaten ari dela, Ramunek galdetzen dio emazteari belarrira: "Txipiroiak nork ekarri ditu ba!"...

"Bizilagunak!"

Ramuni honek eman dio bihotzean min; hitzik gabe geratu da... Eta gero berez piztu zaio Gabonetako argia, eta esan du bere kolkorako: "Neuk eramango diot Erregetan bere semetxoari behin eskaini eta gero eman ez nion... nire bilobari txikia geratu zaion bizikleta.